



Jesuiten orolgarri bat, El Salvadorren, hil zituzten tokian. ROBERTO ESCOBAR/EFE

Ellakuriaren hilketa ikertzen jarraituko du Eloy Velasco epaileak

PPK atzerriko kasuen auziei ipinitako trabak saihesteko, kasutik kendu ditu gizateriaren kontrako delituak

Arantxa Iraola

«Logikarik gabekoa». «Kontra-sanezkoa». Espainiako Auzitegi Nazionalako epaile Eloy Velasco-ren arabera, gaitzesteko modukoa da PPK justizia unibertsalean oinarritutako atzerriko auzibideak eragozteko indarrean jarri duen lege aldaketa, eta, horregatik, hori saihesteko bidea egin nahi du. Izan ere, Ignacio Ellakuria euskal jesuitaren eta haren kideen —lau jesulagun espainiar, denak 1989ko azaroan hil zituzten El Salvadorren, militarrek egindako eraso batean— hilketa ikertzeko hasia zuen prozesuarekin jarraitu nahi du. Atzo plazaratu zuen horren berri ematen duen autoa. Bertan aditzera eman duenez, ikerketapean daudenei gizateriaren kontrako delituak egotzi beharrean, hilketa «terrorista» bat egin ote zuten argitzen saiatuko da orain, legeak hori ez duela eragozten iritzita. Ez da atzerrian jazotako delituak ikertzen jarraitu nahi duen Espainiako Auzitegi Nazionalako epaile bakarra, Santiago Pedraz epaileak ere, esaterako, Jose Couso argazkilariairen —iraken hil zuten— kasua ikertzeko bidea ez du alboratu nahi.

Oihartzun handia izan zuen Ellakuriaren hilketak. Harekin batera hil zituzten Ignacio Martín Baro, Segundo Montes, Amando Lopez eta Juan Ramón Moreno jesuita espainiarrak, El Salvador kide bat, eta etxeko lanak egiteko heraienean bizi ziren andre bat, eta haren alaba. UCA Erdialdeko

Amerikako Unibertsitatean hil zituzten denak, beren bizileku eta lantokian; bertako errektorea zen Ellakuria, eta El Salvador bidegabekeria askoren ahots ozena. Jesuitek Askapenaren Teologiarekin zuten loturari buruz erruz hitz egin zen, eta behartsuenen alde egiten zuten lanaz ere bai. Velascok atzoko autoan aditzera eman duenez, El Salvadorren hilketa horiek argitzeko egin zen epaiketa «druzur bat» izan zela pentsatzeko zantzuak asko dira, kasuarekin lotutako asko ez zituzten epailetara deitu, «justiziaren independentzia» ez zen habestu, eta zigorrik handiena jaso zuen auzipetuak —Guillermo Alfredo Benavides koronela— 30 urteko kondena bazuen ere, indultua eman zioten urtebetera. Eta auzia Espainiara eramateko bideirik ez da izan orain arte; 2012an El Salvador hamahiru militar ohi estraditatzeko eskatu zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak, eta eskaria ez zuen onetsi El Salvador doko Justizia Auzitegi Gorenak.

PPK, Inoren sostengurik gabe Espainiako Diputatuen Kongresuak igaro otsailaren 27an onartu zuen justizia unibertsalaren inguruko lege berria; aski prozedura laburra hautatu zuen gobernuak festua aurrera ateratzeko, eta, kontrako asko izan arren, aholku txostenik ere ez zuen eskatu. Ondorioz, protesta artean onartu zuen legea PPK. Bakarrik. Oposizioko taldeek egotzi zioten Tibeteko genozidioa ikertzeko hasitako auzibidearen harira Txinako Gobernuak egindako ohar-tarazpenen aurrean kikildu zela. Ia erabat itxiko dizkio ateak justizia unibertsalari: biktimak eta krimenaren egileak, biek egon beharko dute Espainian, auzibide bat abian jartzeko.